

EKOIZPEN ESPAZIOAK

Gaian sartzeko, irudikapenak agerraraz:

Ikasleen irudikapenen, bizipenen eta ezagutzen erabiltzea baliagarria da ikasleak ikasteko urraspidean ezartzeko. Jarduera honek gaiaren nondik norakoa erakutsi behar du: zertan diren gaiari buruz eta zer lortu behar duen. Halaber, ikasleen bizipenetatik eta irudikapenetatik abiatuz, gaia konketuago eta motibagarriago bihurtzea da helburua.

- **Egin-moldea:**

Edozein egin-molde egokia da ikasleek beren irudikapenak adieraz ditzaten: galdera(k) eginez, argazkia(k) erakutsiz, aktualitateko berri bat erabiliz, bideo bat ikusiz... garrantzitsuena baita ikasleen gogoeten piztea eta haien erabiltzea gaian sartzeko.

1. adibidea: Berri bat irakurri edo entzunarazi. Adibidez Euskal Elkargoak proposatu azken norabideetarik bat. Informazio anitz bada Euskal Elkargoko gunean eta argitalpenetan.

2. adibidea: Galdera bat eginez, adibidez: *Zer da jarduera ekonomiko nagusia? Zein jarduera aldatu da gehienik azken hamarkadeetan? Euskal Herria herrialde turistikoa ote da? Zer sailetan ari ziren zuen amatxi eta aitaxi? Zer sailetan lan egiten dute gazteek udako sasoian?*

3. adibidea: Argazkia(k) erakutsi, adibidez txostenaren argazki bat edo beste. Ondotik galderak egin edo **I** lehen erreakzioak bil.

Edozein proposamen harturik, denei gako-hitzen bidez saio kaierean erantzutea galda epe laburra emanaz: minutu bat.

- **Ikasleen gako-hitzak arbelean bil:**

Ikasleen gogoeta guziak kontuan hartu behar dira, hots, ez da zuzenketa; erantzun guziak egokiak dira. Ikasleek aldizka hitz bat idatziko dute arbelean, edo idazkari batek (edo bik), edo irakasleak berak. Ondotik, gako-hitzak gaika antolatzen saiatuko da kolore desberdinez inguratuz (garraioak, jarduerak, arazoak, abantailak...). Helburua hau da: irudikapen horiek gaiaren helburuari eta problematikei lotzea. Horregatik, ezinbestekoa da irakasleen rola jardueraren biribiltzeko.

Kasu honetan, gaia oso zabala denez, oinarrizko nozioak lehenetsiz eta ikasleen egoeraren arabera (eskualdea, proiektuak...) hautuak egitea komenigarri liteke. Oinarrizko nozio zenbait: ekonomiaren tertziarizazioa, lehiatasun guneak, berrikuntza eta mundializazioa, laborantzako lurren eta laborarien kopuruen ttipitzea, turismoaren masifikazioa...

Kontuan hartuz gaurko munduaren ezagutzea dela helburua, ezinbestekoa da eragileen eta aktualitateko gaiak azaltzen dituzten tokiko komunikabideen webguneei behatzea: Kanaldude, Euskal irratiak, Euskal Elkargoa, EHLG...

EKOIZPEN ESPAZIOAK

I. Ekoizpen espazioen bilakaera

Problematika

Zer, non eta nola ekoizten da Euskal Herrian?

Xerka ezazu!

1. **1. eta 3. dok.:** Zer dira Ipar Euskal Herriko jarduera ekonomiko nagusiak? Betidanik hala izan ote da?

Jarduera ekonomiko nagusia zerbitzuak dira (% 70). Ez da betidanik horrela izan: lehen, laborantza zen jarduera nagusia. Turismoa aspalditik tokia handia du Ipar Euskal Herriko ekonomian; industriak ere, halaber, nahiz oro har industrializazioan ez zuen beste eskualde batzuetako garapena (salbu Hazparnen, Maulen eta Baionako burdinoletan (lotura egin daiteke historiarekin).

2. **2.dok.:** Ipar Euskal Herriko enpresen eta enpleguaren banaketa deskriba ezazu.

Enplegua eta lanpostuen banaketa ez da orekatua, askoz gehiago baitira kostaldean.

3. **3.dok.:** Zerk egiten du Euskal Herria erakargarri?

Euskal Herria erakargarri da kokapen estrategikoa duelako (bi estaturen arteko muga, ozeanoa, Pirinioak...) eta bizi kalitatea handia. Gainera, azpiegitura egokiak ditu (aerportua, portua...), enpresa handiak (adibidez Dassault) eta ekonomia eragileak (adibidez Herrikoa).

II. Industria espazioak

Problematika

Nola antolatzen dira industria-ekoizpen espazioak?

Geografiako hiztegia erabil eta ahoz adieraz!

1. Baionako teknogunearen aurkezpen fitxa presta ezazu: kokapena, historia, helburuak, eragileak, osaketa, berezitasuna...

Kokapena: Baionako hiri sartzean, kostaldeko ardatzean (Paris-Madril), irisgarritasun egokia (autopista sarrera ondoan eta aeroportutik hurbil).

Historia: 2009an sortua, oraindik garatzen ari da.

Eragileak: Euskal Hirigune Elkargoa, enpresa pribatuak (Elkar) eta formakuntza zentroak (ESTIA).

Helburuak: industria berritzaileago eta lehiakorrago bilakatzea eta tokiko ekonomiaren garatzea.

Osaketa: 30 enpresa, enpresa-mintegi bat (enpresen laguntza-egitura), enpresa inkubagailu bat (enpresa berrien sortzeko laguntza-egitura) eta plataforma teknologiko bat.

Berezitasuna: robotika, aeroespaziala eta material aitzinatua.

Aerospace Valleyren ziurtagiria du.

2. Zure aurkezpen fitxa erabiliz, irratiko podcast bat graba ezazu. Helburua: ekonomia emankizun baten bidez enpresariak konbenitztea beren enpresak Baionako teknogunean kokatzea.

Podcasta grabatu baino lehen, aurkezpan fitxa zuzendu behar da. Zuzenketa horretan nahitaezkoa da ikasleekin oinarrizko nozioen eta adibideen bereiztea (bi kolore erabiliz egin daiteke, adibidez industria berritzailea dela oinarrizkoa, Elkar, aldiz, metrologian aditu enpresen adibidea da. Halaber, mundializazioaren garrantziaren ulertzeko, gaia ahal den guzietan agertu behar da. Kasu honetan, ikasleei galdetzen ahal zaie azpimarratzea zein ezaugarri lotura zuzena duen mundializazioaren prozesuarekin (ikus gainera zuzenketa).

Xerka ezazu!

1. Izarbelen kokapen, irisgarritasuna eta oro har erakargarritasuna azal ezazu.

Izarbel muga ondoan, hots, bi estaturen artean kokatua da (euroeskualean), Miarritzeko aeroportutik eta geltokitik 10 minututan. Ingurune natural eta bizi kalitate biziki erakargarriak ditu: klima epela, hondartza, mendia, herri eta hiri ederrak...

2. Izarbel teknopolaren osagaiak azal itzazu.

Osaketa: 110 enpresa, 1.100 bat langile. Hiru hotel-enpresa, enpresa-mintegi bat (enpresen laguntza-egitura), enpresa inkubagailu bat (enpresa berrien sortzeko laguntza-egitura), bi plataforma teknologiko, enpresa-hautzandegi bat, besteak beste.

3. *Hupi* enpresa aurkez ezazu: jarduera, baloreak eta kokapena.

Hupi enpresa 2013an sortu zen Izarbelen. Orain Donostian ere badu egoitza bat. Adimen artifizialari buruzko zerbitzuak eskaintzen dizkie beste enpresei. Hupiren berezitasuna haren baloreak dira, tokiko eragileekin lan egiten du: Herrikoa, Lurzaindia.... tokiko kultura sustatzen du, hala nola euskara... eta giza baloreak.

4. Txosteneko informazioak erabiliz, gutun bat idatz iezaiozu Parisko gazte bati, ESTIA ingenieritza eskolara etor dadin konbentzitzeko.

Gutuna idatzi aitzin, baliagarri da taldean ezaugarri nagusien zerrendatzea eta sailkatzea: Nork? Zer? Zertako? Noiz? Non? Nola? eta adibideak.

III. Laborantzaren erronka

Problematika

Nola eraldatu dira laborantzako eremuak?

Xerka ezazu!

1. Dokumentuen informazioa kontuan hartuz, zerrenda itzazu **Ipar** Euskal Herriko laborantzako espazioen eraldaketaren bost ezaugarri.

3.800 etxalde dira, haietarik anitzek ez dute segidarik laborarien kopurua ttipitzen ari delako. Hazkuntza da jarduera nagusia: esnetako ardiak eta haragitako behiak bereziki. Ardiak eta behiak gehienik belarrez bazkatzen baitira, laborantzako lurren % 90 horretarako erabiltzen dira. Horregatik **garrantzia handia du mendiak**.

2. Zer arazo sortzen du laborantza industrialak?

Gehienetan monokultiboak dira, horrek ondorioak ditu inguramenean eta animalietan. Alor sozialeko kalteak ere eragiten ditu.

3. Zein dira Euskal Herriko laborarien kezka nagusiak?

Etxaldeen segida falta, etxebizitzaren eraikitzeke lurren erabilera laborantzako lurren kaltetan, kutsadura eta bioaniztasunaren suntsitzea.


4. Zer dira laborarien laguntzeko proposamenak? Nor dira eragileak?

Euskal Elkargoak dirulaguntza proposatu du 2024an etxalde ttipien instalazioen laguntzeko. Estatu eta Europa mailan badira sor markak: AOP eta AOC (Ezpeletako biperra, Irulegiko arnoa, Ossau-Iraty gasna eta Kintoa xerrikoa, baita tokiko laborarien elkarteek sortu marka: Idoki.

Ohar bat: txostenean ez da aipatzen Europako PAC (politique agricole commune), gomendatzen da horren gehitzea.

Eskemen eraikitzea:

Eskema bat eraiki ezazu gaur egungo laborantzaz, bildu informazioei esker: aldaketa nagusiak, arazo edo erronkak, laguntza proposamenak, eragileak.



Idatziz adieraztea

- Testu egituratu bat idatz Euskal Herriko turismoari buruz.
- Testua idatzi aitzin, turismoaren ezaugarriak, abantailak, arazoak eta erronkak identifika itzazu.
- Ez ahantz azaltzea eragileak nor diren eta zer egiten duten.

Ezaugarriak: Frantziako estatuko 2. helmuga turistikoa (Biarritz eta Donibane lohizune bisitatuenerakoak). Turistak heldu dira naturarengatik (itsasoa, mendia, pentzeak...), euskal nortasunarengatik: pilota, dantza, etxeak, festak (biper festa), gastronomia... Jatorria: Europa (Espainia, Alemania, Erresuma Batua, Suitza eta Herbeherak bereziki), eta Hego Euskal Herriko anitz.

Abantailak: aberastasun ekonomia: 2,1 miliar euro eta 10.000 lan postu sortzen (% 6), Euskal Herriaren ospe handia (EHaren aipamen handia Interneten).

Arazoa: turismo masiboa.

Erronkak: turismoa iraunkor bihurtzea.

Eragileak: Euskal Elkargoa (turismoa sustatzen du gaurko erronkeei buru eginez), *Goazen* klusterra (enpresendako laguntza), enpresa pribatuak eta biztanleak.